AGIRI HAU MAKINAZ EDO LETRA LARRIZ BETE BEHAR DA

**DATUEN BABESA.-** Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko (E.A.O., 1999ko abenduaren 14koa) 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusi diren ondoreetarako, inprimaki honetan jartzen dituzun datuak Afiliazio Fitxategi Nagusian sartuko direla jakinarazten dizugu. Fitxategi hori 1999ko martxoaren 26ko aginduaren bitartez aldarazi zen 1994ko uztailaren 27ko aginduaren bidez araupetu zen. Aipatu datuei dagokienez, datuok atzitu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

## INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

**Enpresaburu batek bere langileetako bat jarduera aldi baterako egitera** beste herrialde batera bidaltzen duenean bete behar da inprimaki hau, baldin eta, Gizarte Segurantzaren arloko nazioarteko arauak aplikatuz, Gizarte Segurantzaren arloan Espainiako legeria aplika badaiteke. Gauza bera gertatzen da bere jarduera beste herrialde batean egitera aldi baterako joaten den **norberaren konturako langilearen** kasuan ere, baldin eta, aplika daitekeen nazioarteko arauarekin bat etorriz, Norberaren Konturako langileen Araubide Bereziko altari eusten jarraitu ahal badu.
Halaber, besteren edo norberaren konturako jarduera aldi berean edo aldizka Europar Batasuneko zenbait herrialdetan, Europako Esparru Ekonomikoan eta Suitzan egiten denean ere, inprimaki hau bete behar da.

### 1.- ATZERRIRA DOAN LANGILEAREN DATUAK

Lekuz aldatzen (atzerrira joaten) den langilearen datu pertsonalak adierazi behar dira.

### 2.- BESTEREN KONTURAKO LANGILEA - LANEKO DATUAK

Langilea lekuz aldatzen duen sozietatearen izena edo enpresari dagozkion deiturak eta izena adierazi behar dira.
Baldin eta langilea jarduera beste herrialde batean egiteko kontratatzen bada, lekuz aldatzen den langitzat hartzeko, aurrekariak izan beharko ditu Espainiako Gizarte Segurantzan, nazioarterko arauetan ezarririk dagoenarekin bat etorriz.
Lekualdatzea (atzerrira joatea) CE 883/04 Araudia aplikatze aldera gertatzen denean eta langileak xedeko enpresarekin kontratua duenean (enpresa horrek soldata osoa ordaintzen dionean), ezin aplika daiteke arestion aipatu den Araudiaren 12.1. artikulua, eta horrenbestez, 16. artikulua aplikatu beharko da, eskatzen den epealdia gorabehera.

### 3.- NORBERAREN KONTURAKO LANGILEA - LANEKO DATUAK

Baldin eta langileak beste herrialde batean jarduera egiteko Norberaren Konturako Langileen Araubide Berezian alta hartzen badu, behargin hori ezin daiteke lekuz aldatu den langiletzat hartu, Gizarte Segurantzaren arloko nazioarteko arauetan xedaturik dagoenaren arabera.
Espainian egiten den jarduera mota adierazi behar da; jarduera horrek xedeko herrialdean egiten dena bera edo antzekoa izan behar du.

### 4.- ATZERRIRA JOATEARI DAGOZKION DATUAK

**4.1. JARDUERA XEDEKO HERRIALDE BAKAR BATEAN EGITEA**

Eskatzen den epealdian zehar langileak bere jarduera xedeko herrialde bakar batean egingo duenean bete behar da atal hau. Eskatzen den epealdia hamabi hilabetetik beherakoa bada, eta hurrengo hamabi hilabeteetan xedeko beste herrialde batean edo batzuetan jarduerak egitea aurreikusten bada, langileak jarduerak bi herrialdetan edo gehiagotan egiten dituela uler daiteke, eta kasu honetan 4.2. atala bete beharko da.

- ☛ **OHIKO EGOITZA DUEN HERRIALDEA:** Espainiako Gizarte Segurantzaren arautegia aplikatzea bidezkoa den zehazte aldera, garrantzizkoa da langileak egoitza zein herrialdetan duen eta herrialde horretan noiztik bizi den adieraztea.
- ☛ **XEDEKO HERRIALDEAN EGITEN DUEN JARDUERA**: beste herrialdean egiten duen jarduera norberaren edo besteren konturakoa denentz adierazi behar da. Baldin norberaren konturakoa bada, jarduera horrek Espainian egiten den jardueraren antzekoa izan behar du.
- ☛ **JARDUERA EGITEN DEN TOKIA**: jarduera enpresa bakar batean egiten denean, sozietatearen izenari eta herrialde horretan Gizarte Segurantzaren ondoreetarako esleitzen zaion identifikazio-zenbakiari buruzko datuak adierazi behar dira. Egoitzari dagokionez, kalea, zenbakia, herria eta posta kodea adierazi behar dira horretarako jarrita dauden eremuetan. “Ez dauka helbide finkorik” jarriko da langileak bere jarduera xedeko herrialdeko lurralde osoan zehar egiten duenean eta hoteletan ostatu hartzen duenean.
- ☛ **XEDEKO HERRIALDEA**: langilea lekuz aldatzen den herrialdea adierazi behar da. **Europar Batasunetik kanpoko herrialdea denean, beren beregi ezarririk dagoen formularioa erantsi behar da (Ikus koadro erantsia).**
- ☛ **LEKUALDATZE-EPEALDIA**: beste herrialdean jarduera egiteak iraungo duen guztirako epealdia adierazi behar da. **Aldebiko Hitzarmena duen herrialde batera lekuz aldatuz gero, lehenbizi hasierako lekualdatzeari dagokion epealdia izapidetuko da (Ikus koadro erantsia).**

**4.2. JARDUERA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN EGITEA: (EB, EEE eta Suitza soilik)**

Langileak bere jarduera aldi berean edo aldizka Europar Batasuneko bi herrialdetan edo gehiagotan, Europako Esparru Ekonomikoan edo Suitzan egiten duenean bete behar da inprimaki hau.

4.2.1. <u>BESTEREN KONTURAKO LANGILEA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN</u>

Atal hau betetzeari doakionez, ondoko kasu hauetan Espainiako legeria aplikatu behar dela ulertzen da:

- ☛ Langilea Espainian bizi denean edo bere jardueraren zati handi bat Espainian egiten duenean.
- ☛ **Bere jardueraren zati handi bat Espainian egin ezean, ondokoa kasuetan ere Espainiako legeria aplikatzen da:**
- ☛ Langilea egoitza Espainian duen enpresa batek edo batzuek kontratatuturik dagoenean, egoitzako herrialdea gorabehera, betiere langileak bere jardueraren zati handi bat egoitza duen herrialdean egiten ez badu. Kasu honetan, egoitzako herrialdeari dagokion legeria aplikatuko litzateke.
- ☛ Langilea Espainian bizi denean eta enpresa bik edo gehiagok kontratatuturik badago (baldin eta, gutxienez, enpresa horietako bik egoitza Espainian badute). Berbarako: langile bat Alemaniako enpresa batek, Frantziako beste batek eta, hirugarrena izatekotan, Espainiako enpresa batek edo beste herrialde bateko enpresa batek kontratatzen duenean.

Espainiako legeriari ere aplikatzen zaio, **langilea Espainian bizi ez denean eta egoitza duen herrialdean bere jardueraren zati handi bat egiten ez duenean**, baina bere jarduera egoitza Espainian duen enpresa batentzat eta egoitza duen estatu kidean egoitza duen beste enpresa batentzat edo batzuentzat egiten duenean.

Hegazkineko tripulaziokideei beren “BASEKO” egoitza-herrialdeko legeria aplikatzen zaie. Ondokoa da “BASEA”: operadoreak tripulatzaile bakoitzari esleitzen dion tokia, zeinetan, usu, tripulatzaileak bere jardura-epealdi bat edo batzuk hasten eta amaitzen baititu. Kasu horretan, normalean, operadoreak ez du tripulatzaileak ostatu hartzearen ardurarik izaten.

- ☛ **OHIKO EGOITZA DAGOEN HERRIALDEA**: Espainiako Gizarte Segurantzaren arautegia aplikatzea bidezkoa den zehazte aldera, garrantzizkoa da langileak egoitza zein herrialdetan duen eta herrialde horretan noiztik bizi den adieraztea.
- ☛ **“BASEA” DAGOEN HERRIALDEA**: hegazkineko tripulaziokideei dagokienez, “BASEA” dagoen herrialdea adierazi behar da.
- ☛ **JARDUERA EGINGO DUEN HERRIALDEAK**: jarduera egitea aurreikusten den herrialdeak baino ez dira adierazi behar.
- ☛ **ESKATZEN DUEN EPEALDIA**: eraso behar den epealdia ezin da hamabi hilabetetik gorakoa izan. Baldin eta atzerrira joatea aurreikusita dagoen epealdia hortik gorakoa bada, beste eskabide bat egin beharko da, hamabi hilabeteko epealdi bat bete behar den bakoitzean.
- ☛ **XEDEKO ENPRESAREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA**: beharrezkoa denean bete behar da, ondokoak adieraziz: izena eta helbide osoa: kalea, zenbakia, herria eta posta kodea.

Ustez, herrialde bitan edo gehiagotan egin daitezkeen jarduerak: artistak, toreatzaileak, kirolariak, turismoko gidariak, garraiolariak (beste herrialde batzuetako Gizarte Segurantzan alta nahitaez hartu beharreko jarduerak).

4.2.2. BESTEREN KONTURAKO LANGILEA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN

Ondoko kasu hauetan Espainiako legeria aplikatu behar dela ulertzen da:

Baldin langileak egoitza Espainian badu eta bere jardueraren zati handi bat Espainian egiten badu. Jardueraren zati garrantzitsu edo handi bat langileak egoitza duen herrialdean egiten duela ulertzen da, langile horrek bere jarduera guztien zati kuantitatibo garrantzitsua herrialde horretan egiten duenean, ondoko hauek kontuan hartuz: negozio-bolumena, laneko denbora, zerbitzugintza kopurua eta diru-sarrerak (zenbaketa orokorrari doakionez, sarrerok ezin daitezke % 25etik beherakoak izan).

Baldin langileak egoitza Espainian ez badu baina bere jardueren interesgunea Espainian baldin badago. “Interesgunea” zehazte aldera, interesatuaren jardueren egoitza finko eta iraunkorra dagoen tokia hartuko da kontuan.

- **OHIKO EGOITZA DAGOEN HERRIALDEA:** Espainiako Gizarte Segurantzaren arautegia aplikatzea bidezkoa den zehazteko, garrantzizkoa da langileak egoitza zein herrialdetan duen eta herrialde horretan noiztik bizi den adieraztea.
- **JARDUERA EGINGO DUEN HERRIALDEAK:** jarduera egitea aurreikusten den herrialdeak baino ez dira adierazi behar.
- **ESKATZEN DUEN EPEALDIA:** eraso behar den epealdia ezin da hamabi hilabetetik gorakoa izan. Baldin eta atzerrira joatea aurreikusita dagoen epealdia hortik gorakoa bada, beste eskabide bat egin beharko da, hamabi hilabeteko epealdi bat bete behar den bakoitzean.
- **XEDEKO ENPRESAREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA:** beharrezkoa denean bete behar da, ondokoak adieraziz: izena eta helbide osoa: kalea, zenbakia, herria eta posta kodea.

4.2.3. HERRIALDE BATEAN BESTEREN KONTURAKO LANGILE ETA BESTE HERRIALDE BATEAN NORBERAREN KONTURAKO LANGILE

Espainiako Gizarte Segurantzaren arautegia aplikatzea bidezkoa den zehazteko, ondoko hauek adierazi behar dira: ohiko egoitza duen herrialdea, besteren konturako jarduera egiten duen herrialdea eta norberaren konturako jarduera egiten duen herrialdea.

Norberaren konturako jarduera bat Espainian egiten badu, jarduera hori Gizarte Segurantzaren arautegiaren menpekoa izaki, eta horrezaz gainera beste herrialde batean norberaren konturako jardueraren bat egiten badu, Espainiako legeriaren menpe egon behar du beste herrialdean egiten duen norberaren konturako jarduerari dagokionez.

4.2.4. ATZERRIRA JOAN BEHARRAREN DESKRIBAPENA

Langilea lekualdatzea eta hark egingo dituen jarduerak bidezkotzen dituzten zioak adierazi behar dira.

## 5.- JAKINARAZPENAK EGITEKO EGOITZA

Eskabide honek sorrarazten dituen ebazpenak, idazkiak eta gainerako agiriak zein helbidetara bidaltzea nahi den adierazi behar da.

## ESKABIDEA EGIN ZAION ORGANOA

**Atxikitako koadroen arabera, hasierako toki-aldatze bati dagokien aldietan, eskaera Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko edozein Probintzia Zuzendaritza edo Administraziora bidaliko da.**

**Baldin eta epealdia “luzapenei” edo “beste lekualdatze batzuei” badagokie, eskabidea helbide honetara bidaliko da: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra – Zerbitzu Zentralak – Los Astros kalea, 5 eta 7 – 28007 Madril.**

# ERANSKINA

## LEKUALDATZEAK, EUROPAKO ERKIDEGOAREN ARAUDIAK APLIKATUZ

**EUROPAR BATASUNEKO HERRIALDEAK:** Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua (Gibraltar) Errumania eta Suedia.

**EUROPAKO ESPARRU EKONOMIKOA (EEE):** Islandia, Liechtenstein eta Norvegia.

**SUITZA**

| CE 883/04 ARAUDIA | | | |
|---|---|---|---|
| **HASIERAKO LEKUALDATZEAK** | | | |
| LEKUALDATZEAK HERRIALDE BAKAR BATERA | | | |
| LANGILEAK | ARTIKULUA | EPEALDIA | FORMULARIOA |
| ARAUBIDE OROKORRA<br>Itsasoko A. Berezia (Besteren konturakoa) | 12.1 | 24 HILABETE | A.1 |
| L.A.A.B. (Autonomoak)<br>Itsasoko A. Berezia (Norberaren konturakoa) | 12.2 | 24 HILABETE | A.1 |
| Itsasoko A. Berezia (Besteren konturakoa) | 11.4 | Mugarik gabe (1) | A.1 |
| Funtzionarioa | 11.3.b | Mugarik gabe (1) | A.1 |
| JARDUERAK ZENBAIT HERRIALDETAN EGITEA | | | |
| LANGILEAK | ARTIKULUA | EPEALDIA | FORMULARIOA |
| ARAUBIDE OROKORRA<br>Itsasoko A. Berezia (Besteren konturakoa) | 13.1 | Mugarik gabe (1) | A.1 |
| L.A.A.B. (Autonomoak)<br>Itsasoko A. Berezia (Norberaren konturakoa) | 13.2 | Mugarik gabe (1) | A.1 |

*(1) Mugarik gabe: kasu honetan, eskabideak hamabi hileko epealdien arabera gauzatzen dira.*

| CE 883/04 ARAUDIA | | |
|---|---|---|
| **BESTE LEKUALDATZE BATZUK** | | |
| ARTIKULUA | EPEALDIA | FORMULARIOA |
| 11.5 | Mugarik gabe | A.1 |
| 13.3 | Mugarik gabe | A.1 |
| 13.4 | Mugarik gabe | A.1 |
| 15 | Mugarik gabe | A.1 |
| 16 | Zehaztu gabe | A.1 |

Baldin eta CEE 1408/71 Araudia aplikatu behar bada, ondoko artikulu hauetan agertzen direnak hartzen dira **hasierako lekualdatzetzat**:

- 14.1a, 14 bis.1a: E.101 formularioarekin izapidetzen dira, 12 hileko gehieneko epealdirako.
- 14.2a, 14.2b, 14 bis.2: E.101 formularioarekin izapidetzen dira, 12 hileko epealdirako; epealdi hori mugarik gabe luza daiteke.

*Ondoko hauek* **“beste lekualdatze batzuk”** *direla ulertzen da:*

- 4.1b eta 14bis.1b artikuluak: E.102 formularioarekin izapidetzen dira, 12 hileko gehieneko epealdirako.
- 17. artikulua: E.101 formularioarekin izapidetzen da, eta Araudian ez da epealdirik zehazten.

**INFORMAZIOA SAREAN**: http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=868
http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=858

# HASIERAKO LEKUALDATZEA

## LEKUALDATZEAK, NAZIOARTEKO BESTE ARAU BATZUK APLIKATUZ

| | | GIZARTE SEGURANTZAKO ALDEBIKO HITZARMENAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | HASIERAKO LEKUALDATZEA | | | LUZAPENAK | | |
| | | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA |
| **HERRIALDEAK** | **NAZIONALITATEA** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BIAK** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BIAK** |
| ANDORRA | DENAK | 2 URTE | URTEBETE | E/AND.101 | 3 URTE | URTEBETE | E/AND.2 |
| ARGENTINA | DENAK | 24 HIL. | 24 HIL. | E-ARG F1 | Z/G | Z/G | E-ARG F-2 |
| AUSTRALIA | DENAK | 5 URTE | 5 URTE | E/AUS.1 (Ziurt.) | Z/G | Z/G | E/AUS.2 (Ziurt.) |
| BRASIL | DENAK | 3 URTE | 2 URTE | E/B.1 | 2 URTE | ---- | E/B.2 |
| KANADA | DENAK | 5 URTE | ---- | E/CDN.3 | Z/G | ---- | E/CDN.3 |
| CABO VERDE | DENAK | 3 URTE | 3 URTE | E/CV.1 | URTEBETE | URTEBETE | E/CV.2 |
| TXILE | ESPAINIA/TXILE | 3 URTE | 3 URTE | E/CHL.1 | 2 URTE | 2 URTE | E/CHL.2 |
| CHINA | DENAK | 72 HIL. | ---- | ES/CN.1 | Z/G | ---- | ES/CN.1 |
| KOLONBIA | ESPAINIA/KOLONBIA | 3 URTE | 3 URTE | ES/CO.3 | 3 URTE | 3 URTE | ES/CO.4 |
| KOREA | DENAK | 60 HIL. | 60 HIL. | ES/KR.1 | Z/G | Z/G | ES/KR.1 |
| DOMINIKAR ERREP. | ESPAINIA/DOMINIKAR ERR. | 3 URTE | 3 URTE | ES/DO.1 | 2 URTE | 2 URTE | ES/DO.2 |
| EKUADOR | DENAK | 3 URTE | 3 URTE | ES/EC.03 | 2 URTE | 2 URTE | ES/EC.04 |
| ESTATU BATUAK ETA PUERTO RICO | DENAK | 5 URTE | ---- | E/USA.1<br>E/USA.1A (*) | URTEBETE | ---- | E/USA-1 |
| FILIPINAK | ESPAINIA/FILIPINAK | 5 URTE | 2 URTE | E/FIL.1 (Ziurt.) | ---- | ---- | E/FIL.2 (Ziurt.) |
| JAPONIA | DENAK | 5 URTE | 5 URTE | ES/JP.07 | Z/G | Z/G | ES/JP.07 |
| MAROKO | ESPAINIA/MAROKO | 3 URTE | ---- | EM-10 | Z/G | ---- | EM-10 |
| MEXIKO | ESPAINIA/MEXIKO | 2 URTE | 2 URTE | ESP/MEX.1 | 2 URTE | 2 URTE | ESP/MEX.2 |
| PARAGUAI | DENAK | 24 HIL. | 24 HIL. | ESPA.1 | Z/G | Z/G | ES/PA.2 |
| PERU | DENAK | 2 URTE | 2 URTE | E/PE.1 | URTEBETE | URTEBETE | E/PE.2 |
| ERRUSIAR FEDER. | ESPAINIA/ERRUSIAR FEDER. | 5 URTE | ---- | E/R.1 (Ziurt.) | Z/G | Z/G | E/R.2 (Ziurt.) |
| TUNISIA | ESPAINIA/TUNISIA | 24 HIL. | ---- | ES/TUN.101 | 24 HIL. | ---- | ES/TUN.102 |
| UKRAINA | ESPAINIA/UKRAINA | 2 URTE | 2 URTE | E/UCR.1 | 2 URTE | 2 URTE | E/UCR.2 |
| URUGUAI | DENAK | 2 URTE | ---- | EU.5 | Z/G | ---- | EU.6 |
| VENEZUELA | ESPAINIA/VENEZUELA | 2 URTE | ---- | E/V.2 | URTEBETE | ---- | E/V.2Bis |
| ERRESUMA BATUA | DENAK (lekualdatzeak Man eta Jersey uharteetara soilik) | 12 HIL. | ---- | E/UK-1 | 12 HIL. | ---- | E/UK-2 |
| SUITZA | E.B.eko NAZIONALITATEA EZ DUTENAK | 24 HIL. | ---- | E/CH-1 | Z/G | ---- | E/CH-1 |

*(1) Eskaera funtzionarioekin lotuta bada, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiko edozein Probintzia Zuzendaritza edo Administraziora bidaliko da.*

*(*) E/USA.1A formularioa, artsiten lekualdatzeen kasuetarako soilik, eta 90 egunetik beherako epealdietarako*

| | | GIZARTE SEGURANTZAKO HITZARMEN ALDEANIZTUN IBEROAMERIKARRA | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | HASIERAKO LEKUALDATZEA | | | | LUZAPENAK | | |
| | | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA | | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA |
| **HERRIALDEAK** | **NAZIONALITATEA** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BESTEREN K** | **NORB. KONT.** | **BESTEREN K.** |
| BOLIVIA | DENAK | URTEBETE | URTEBETE | IBERO-3 | IBERO-4 | URTEBETE | ---- | IBERO-5 |
| TXILE | DENAK, SALBU ESPAINIA/TXILE | URTEBETE | URTEBETE | IBERO-3 | IBERO-4 | URTEBETE | ---- | IBERO-5 |
| EL SALVADOR | DENAK | URTEBETE | URTEBETE | IBERO-3 | IBERO-4 | URTEBETE | ---- | IBERO-5 |
| URUGUAI | DENAK | ---- | URTEBETE | ---- | IBERO-4 | ---- | ---- | ---- |

| | | GIZARTE SEGURANTZAKO EUROPAR HITZARMENA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | HASIERAKO LEKUALDATZEA | | | LUZAPENAK | | |
| | | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA | GEHIENEKO EPEALDIA | | FORMULARIOA |
| **HERRIALDEA** | **NAZIONALITATEA** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BIAK** | **BESTEREN K.** | **NORB. KONT.** | **BIAK** |
| TURKIA | AU, BE, ES, IT, LU, NL, PT eta TURKIA (*) | URTEBETE | ---- | EC.1 | Z/G | ---- | EC.2 |

*Z/G: zehaztu gabe, hau da, epealdia ez da Hitzarmenean jasotzen*

*(*) Austria, Belgika, Espainia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal eta Turkia*

MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

# TA.300-E LANGILEAK ATZERRIAN

Aurkezpen-erregistroa

Sarrera-erregistroa

*(IKUS INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK ETA AURKEZTEKO TOKIA)*

## ESKABIDEA, GIZARTE SEGURANTZAREN LEGERIARI BURUZ APLIKA DAITEKEEN INFORMAZIOARI DAGOKIONA

### 1. ATZERRIRA DOAN LANGILEAREN DATUAK

LEHEN DEITURA | BIGARREN DEITURA | IZENA | GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

JAIOTEGUNA: Eguna | Hila | Urtea

IDENTIFIKAZIO-AGIRIA (Jar "X" behar den tokian): NAN: ☐ A.I.Z.: ☐ PASAPORTEA: ☐

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZENBAKIA | NAZIONALITATEA

DATU TELEMATIKOAK:
HELBIDE ELEKTRONIKOA
TELEFONO MUGIKORRA
GIZARTE SEGURANTZAREN INFORMAZIO-BERRIEMATEAK ONARTZEN DITUT: BAI ☐ EZ ☐

### 2. BESTEREN KONTURAKO LANGILEA.- LANEKO DATUAK

LANGILEA ATZERRIRA BIDALTZEN DUEN SOZIETATEAREN IZENA EDO HAREN DEITURAK ETA IZENA | KOTIZAZIO-KONTUAREN KODEA (KKK) | KKKren POSTA KODEA

LANGILEA ATZERRIRA EROATEKO KONTRATATU AL DUZU? BAI ☐ EZ ☐

BA AL DU KONTRATURIK XEDEKO ENPRESAREKIN? BAI ☐ EZ ☐

NORK ORDAINTZEN DIO SOLDATA? ESPAINIAKO ENPRESAK ☐ XEDEKO ENPRESAK ☐ BIEK ☐

*(Ikus jarraibideak Espainiako legeria aplikatzea noiz den bidezkoa jakiteko)*

### 3. NORBERAREN KONTURAKO LANGILEA.- LANEKO DATUAK

LANGILEAK ESPAINIAN EGITEN DUEN JARDUERA MOTA | JARDUERAREN EGOITZAREN POSTA KODEA

ALTA HARTU AL DU LAABn BERE JARDUERA BESTE HERRIALDE BATEAN EGITEKO? BAI ☐ EZ ☐

### 4. ATZERRIRA JOATEARI DAGOZKION DATUAK

#### 4.1 JARDUERA XEDEKO HERRIALDE BAKAR BATEAN EGITEA

OHIKO EGOITZAREN DATUAK ATZERRIRA JOAN AURRETIK: HERRIALDEA | DATA HONETATIK: Eguna | Hila | Urtea

XEDEKO HERRIALDEAN EGINGO DU BERE JARDUERA:
BESTEREN KONTURA ☐
NORBERAREN KONTURA ☐ — JARDUERA MOTA
ENPRESAN ☐ EGOITZAN ☐ EZ DAUKA HELBIDE FINKORIK ☐

XEDEKO HERRIALDEA (ikus jarraibideen eranskina)

XEDEKO ENPRESAREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA | IDENTIFIKAZIO-ZENBAKIA

EGOITZA: HERRI-BIDEAREN IZENA | ZENBAKIA
HERRIA | POSTA KODEA

ATZERRIRA JOATEAREN EPEALDIA, GUZTIRA: DATA HONETATIK: Eguna | Hila | Urtea — DATA HONETARA: Eguna | Hila | Urtea

### EREDU HONEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO GAINERAKO DOKUMENTAZIOA

CE 883/04 Araudiaren 16. artikulua aplikagarri denean, dokumentu hauek gehituko dira:
- Frantziarako CLEISS galdetegia eta desplazamendu-kontratua
- Errumaniarako herrialde hartan egiten diren jarduerak azaltzen diren idatzi bat
- Belgikarako, norbere konturako langileek "RETA Belgika" galdetegia gehitu behar dute
- Bost urte baino gehiagoko aldietarako, herrialde hartan gelditzeko beharra arrazoitzen duten egoera profesionalak eta pertsonalak argudiatzen dituen idatzi bat.

Aldebiko hitzarmenak, Aldeanitz iberoamerikarra eta Europako Akordioak aplikagarri direnean, hau atxikiko da:
- "Hasierako desplazamendurako" dagokion inprimakiaren jatorrizko hiru ale.
- "Ohiko luzapenerako" dagokion inprimakiaren jatorrizko lau ale eta hasierako desplazamendurako jaulkitako inprimakiaren kopia bat.
- "Aparteko akordioetarako", "luzapena" inprimakiaz gain, herrialde hartan gelditzeko beharra arrazoitzen duten egoera profesionalak eta pertsonalak argudiatzen dituen idatzi bat. Marokorako, langileak Espainiako enpresarekin duen kontratuaren kopia bat ere gehitu behar da.

Eskaera atzeraeraginezko ondorioekin egiten denean, bere garaian ez eskatu izanaren arrazoiak adierazten diren idatzi bat gehitu beharko da.

OHARRA:
Hizkuntza ofizialkidea duten Autonomia-Erkidegoetan, inprimaki hau bi hizkuntzetan dago eskueran.

TA.300-E
*(01-06-2017)*

## 4.2 JARDUERA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN EGITEA (EB, EEE eta SUITZA)

### 4.2.1 BESTEREN KONTURAKO LANGILEA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN

OHIKO EGOITZAREN DATUAK — HERRIALDEA ____ DATA HONETATIK: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____

JARDUERAREN ZATI HANDI BAT ESPAINIAN EGITEN AL DU? BAI ☐ EZ ☐

EGOITZA ESPAINIAN DUTEN ENPRESA BIRENTZAT EDO GEHIAGORENTZAT LAN EGITEN AL DU? BAI ☐ EZ ☐

EGOITZA ESPAINIAN DUEN ENPRESA BATENTZAT SOILIK LAN EGITEN AL DU? BAI ☐ EZ ☐

EGOITZA ZENBAIT ESTATU KIDETAN DUTEN ENPRESA BIRENTZAT EDO GEHIAGORENTZAT LAN EGITEN AL DU? BAI ☐ EZ ☐

LANGILEAREN "BASEA" DAGOEN HERRIALDEA
(Hegazkineko tripulaziokideak)

*(Ikus jarraibideak Espainiako legeria aplikatzea noiz den bidezkoa jakiteko)*

JARDUERA EGINGO DUEN HERRIALDEAK

**ESKATU DEN EPEALDIA** *(Gehienez urtebete; bidezkoa bada, epealdi hori beste urtebetez luza daiteke)*

Data honetatik: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____ Data honetara: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____

BETE, BEHARREZKOA BADA

XEDEKO ENPRESAREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA — IDENTIFIKAZIO-ZK.

EGOITZA: HERRI-BIDEAREN IZENA — ZENBAKIA — HERRIA — POSTA KODEA — HERRIALDEA

### 4.2.2 NORBERAREN KONTURAKO LANGILEA ESTATU KIDE BITAN EDO GEHIAGOTAN

OHIKO EGOITZAREN DATUAK — HERRIALDEA ____ DATA HONETATIK: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____

JARDUERAREN ZATI HANDI BAT ESPAINIAN EGITEN AL DU? BAI ☐ EZ ☐

JARDUEREN INTERESGUNEA DAGOEN HERRIALDEA

*(Ikus jarraibideak Espainiako legeria aplikatzea noiz den bidezkoa jakiteko)*

JARDUERA EGINGO DUEN HERRIALDEAK

**ESKATU DEN EPEALDIA** *(Gehienez urtebete; bidezkoa bada, epealdi hori beste urtebetez luza daiteke)*

Data honetatik: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____ Data honetara: Eguna ____ Hila ____ Urtea ____

BETE, BEHARREZKOA BADA

XEDEKO ENPRESAREN IZENA EDO SOZIETATEAREN IZENA — IDENTIFIKAZIO-ZENBAKIA

EGOITZA: HERRI-BIDEAREN IZENA — ZENBAKIA — HERRIA — POSTA KODEA — HERRIALDEA

### 4.2.3 HERRIALDE BATEAN BESTEREN KONTURAKO LANGILE ETA BESTE HERRIALDE BATEAN NORBERAREN KONTURAKO LANGILE

OHIKO EGOITZA DUEN HERRIALDEA

JARDUERA EGITEN DUEN HERRIALDEA
BESTEREN KONTURA ____
NORBERAREN KONTURA (*) ____

EGOERA HONEN HASIERA-DATA Eguna ____ Hila ____ Urtea ____

(*) ***Besteren konturako jarduera Espainiako legeriaren menpekoa denean, bidezkoa da beste herrialdean egiten den norberaren konturako jarduerari ere Espainiako legeria aplikatzea.***

### 4.2.4 ATZERRIRA JOAN BEHARRAREN ETA EGIN BEHARREKO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

## 5. JAKINARAZPENAK EGITEKO EGOITZA

IZEN-DEITURAK EDO SOZIETATEAREN IZENA

| BIDE MOTA | HERRI-BIDEAREN IZENA | BLOKEA | ZK. | BIS | ESKAIL. | SOL. | ATEA | POSTA KODEA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | |

| UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA | PROBINTZIA | TELEFONOA |
|---|---|---|
| | | |

**ESKABIDEA EGIN ZAION ORGANOA:**

| TOKIA, DATA ETA ENPRESAREN/LANG. AUTONOMOAREN SIN. | ENPRESAREN ZIGILUA |
|---|---|
| Tokia: Data: <br> Sinadura ____ | |

TA.300
(03-02-2014)

MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

## GORDEKINA, GIZARTE SEGURANTZAREN LEGERIARI BURUZ APLIKA DAITEKEEN INFORMAZIOARI DAGOKION ESKABIDEARENA (TA.300-E)

Agiri honetan adierazten den datan, Gizarte Segurantzaren arloan aplika daitekeen legeriari buruzko informazioari dagokion eskabidea sartu da Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Nagusiaren/Probintzi Zuzendaritzaren edo Administrazio honen erregistroan

LEKUZ ALDATU DEN LANGILEAREN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA

GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.

IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZENBAKIA

Sarrera-erregistroa

TA.300-E (Gordekina)
*(04-12-2015)*

MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL

GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINTZA OROKORRA

## ONGITZEA EDO/ETA HOBEKUNTZA, GIZARTE SEGURANTZAREN LEGERIARI BURUZ APLIKA DAITEKEEN INFORMAZIOARI DAGOKION ESKABIDEARENA (TA.300-E)

Gizarte Segurantzaren arloan aplika daitekeen legeriari buruzko informazioari dagokion eskabideak edo/eta eskabide honi erantsi zaion formularioak, ez ditu Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 66. artikuluan edo/eta urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu Orokorrean ezartzen diren eskakizunak betetzen, beraz ezin da

ESKATZAILEAREN DATUAK (ENPRESARENAK EDO NORBERAREN KONTURAKO LANGILEARENAK)

SOZIETATEAREN IZENA EDO DEITURAK ETA IZENA (norberaren konturako langilea denean)

KOTIZAZIO-KONTUAREN KODEA

Au.I.Z.

39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarririk dagoenarekin bat etorriz, enpresa eskatzaileak HAMAR EGUNeko epean ongitu beharko du adierazi den okerra, edo/eta aipatu diren agiriak aurkeztu.

Baldin okerra ongitzen ez badu edo eskatu zaizkion agiriak aurkezten ez baditu,espedientea artxibatu egingo da, bestelako izapiderik egiteke.

Irteera-erregistroa

(TA.300-E (Ongitzea)
*(01-10-2016)*